


## Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



**Josafat**  
Luis Haranburu  
Altuna  
KUTXA FUNDAZIOA  
98 orrialde  
7,60 euro

## Donostia Hiriko antzerki saria

Luis Haranburu Altunaren *Josafat* antzezlana eskuratu zuen iaz Donostiako Udalak Kutxa Fundazioaren sustapenarekin urtero antolatu ohi duen literatur lehiaketako antzerki saria. Antzezlaren gaia honakoa da: bukatu da gizadiaren ibilera eta etorri da ordua gauzak bere tokian jartzeko. Gizaki bakoitzari merezi duena emateko tenorea da. Azken Judizioaren uanean hantxe daude San Migel eta Dante euskaldun batzuk epaitzeko. Nor-tzuk? Esteban Garibai, Loiolako Inazio, Manuel Larramendi, Pedro Agerre *Axular*, Agosti Xaho, Santakruz apaiza, Fran-

tzisko Xabier Munibe, Sabino Arana, Migel Unamuno, Jon Mirande, Joxe Miel Barandiaran, Gabriel Aresti eta etakide bat, besteak beste. **|**

## Bizilekua erre dizutenean

Irurtzun aldeko mendietan bizi ziren animaliak dira Iñaki Zubeldiak idatzi duen eta Mari Mar Agirrerren marrazkiak dituen *Basoa sutan* kontakizuneko protagonistak. Eta ziren diogu, orain ez baititugu han aurkituko. Gustura asko zeuden mendi haietan, harik eta gizon nazkagarri bat bidoia eskuan etorri eta sute ikaragarria sortu zuen arte. Orduan, han bertan hil ez zirenak, beste norabait joan ziren, Urdiain alde-ra. Hiru urte pasa dira, baina animaliek ez dute euren benetako bizilekua ahaztu, ezta hain era bortitzean alde egitera bultzatu zituen arrazoia ere. Oroitu egiten dira oraindik, zeinen ongi ibiltzen ziren Bi Haizpe inguruko mendi malkartsuetan, gizakiengandik urrun. Gizon bera berriro ere mendian ikusiko dute ordea, eta kontuak garbitzeko ueña etorriko da. **|**



**Basoa sutan**  
Iñaki Zubeldia,  
Mari Mar Agirre  
EREIN  
30 orrialde  
5 euro



**XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak**  
Batzuen artean  
EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA  
136 orrialde

## Euskara bizia, egunerokoa eta noranahikoa izan dadin

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak sei urteko ibilbidea egin du. Hori dela eta, hizkuntza politikaren arloan egindako bidea eta ondorengo urteetan eman beharreko pausoak aztertu ditu Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, *XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak* txostenean. Helburua, liburuaren apailatzaileen esanetan, gaiaren inguruko eztabaida abian jartzea da, hizkuntza politikaren “argi-ilun batzuei” buruzko gogoeta eginez. Gainera, aurrera begirako ildoak ere jasotzen ditu argitalpenak. Hizkuntza Politikarako Sailburuorde Patxi Baztarriak hitzurrean dioenaren arabera, “gizarte eztabaidak aurrera egin ahala” beste dokumentu bat ontzeko ahalegina egingo dute urte honen hondarrean. **|**

## Margolariaren biografia eta lana

Txiki-txikitatik pinturarako zale-tasuna agertu zuen Jesús Olasagasti margolari donostiarra. Europan loratzen ari ziren abangoardietara hurbildu zen berehala, kubistekin Frantzian eta Quattrocentoa osatzen zuten pintore italiarrekin harremanetan jarriz; Ingalaterran, berriz, erretratugile handien teknika bereganatu zuen. Abangoardista izan zen bere aurreneko margolana, beraz. Baina ondoren Gerra Zibilak markatu zuen, eta bere koadroren bat 1937ko Parisko Nazioarteko Erakusketan ikusgai izan bazen ere –hain zuzen ere, frankistek egindako triskantzak salatu ziren erakusketan hartan– Olasagastik falangista gisa, beste aldekoekin borrokatu zuen. Gerra ostean begiak kontserbadurismora itzuli zituen, eta erretratuaren bidea aukeratu, horretan ere ospe handia lortuz. **|**



**Jesús Olasagasti (1907-1955)**  
Mª Jesús Lopez de Sosoaga Betolaza  
KUTXA FUNDAZIOA  
128 orrialde  
30 euro



## Gizarte-ezagutzaren garapena

### Batzuen artean

UDAKO EUSKAL  
UNIBERTSITATEA

484 orrialde  
27,40 euro

## Gazteenek duten gizarte ezagutzaren garapena

Udako Euskal Unibertsitateak plazaratu du Luixa Reizabalek –lan-talde oso zabalaren laguntzarekin– egindako ikerketa. Liburuaren izen osoa *Gizarte-ezagutzaren garapena nerabezarora arte* da. Jaio bezain laster, gizarte-sistema konplexuan murgiltzen gara, eta biziraun nahi badugu, ezinbestekoa zaigu horren inguruko ezaguera garatzea; horretarako, besteak beste, beharrezkoa dugu pertsonen eta haien arteko harremanen inguruko jakinduria: aberria, politika eta ekonomia-aren funtzionamendua ezagutzea; jaiotza eta heriotza ulertzea; baita bakea,

gerra eta beste hainbat kontzeptu sozialen esanahia gogoan izatea ere. ■

## Iñaki Seguroiak irratiz hedatutakoak liburu batean bildurik

Alberdania argitaletxearen eskutik kaleratu du Iñaki Seguroiak *Nere goringotik. Irratian esanak eta botreak* liburu. Arrosa Irrati Sarean eta Euskadi Irratian hizketan jarri zutenean Seguroiak hedatu zituen “jardun, hitzaldi, prediku edo sus-trak” agertzen dira liburuan. Idatzita jaio ziren, baina ahoz esateko. Nolanahi ere, esanak txukundu eta orraztu ditu orain, irakurlearen begietan hobeto eman dezaten. Gaiei dagokien ez, denetarik: *Konstituzioa Hispanitate bezperan*-etik hasi eta *Bilbo, herri mundialarekin* bukatu arte. ■

### Nere goringotik

#### Iñaki Seguroia

ALBERDANIA

232 orrialde / 18,50 euro



FERNANDO MORILLO

## «Polizia-nobela ez bada ere, halakoan kutsua dauka»

Laburbilduko al zeniguke zer den *Suminaren estrategia*?

Intriga da eta manipulazioa, misterioa eta jakin-mina. Protagonistek jolas egin nahi dute, ia beste edozer gauzaren gainetik. Baina haien jolas egitea ez da dibertsio kontua, bizirik irauteko baldintza bortitz eta funtsezkoena baizik.

Nori zuzendutako lana da?

Intrigazko *thriller*-ak maite dituzten irakurleek –edozein adinetakoak izanda ere– gozatzeko moduko dela uste dut. Hori bai, gaztetoentzat baino gehiago, adin handixeagoa dutenentzako liburua dela esango nuke nik –“helduentzat”, nolabait esateko–, bai sentimenduen ikuspegiari begiratuta, bai egitura eta hizkuntzari begiratuta.

Estrategiari garrantzi handia ematen zaio zure nobela honetan.

Estrategia nonahi eta noiznahi aplikatzen da: amodioan, gerran, jokoetan, zientzian, politikan... Baita istorioak garatzeko orduan ere. Amodioa eta gerra bizitzaren beraren bi mozorro dira. *Suminaren estrategia*, pertsonaiek jokoaren maskara janzten dute errealitatea beste era batera egituratzeko, edota gorrotatzeko. Gure egunerokotasunean ere, elkarren oso antzekoak dira maitasunaren eta suminaren estrategiak. Nobela honetan, irakurleak jolas egiten ari dela sentitzea nahi nuen. Intrigazko istorioa izanik, egokia iruditu zitzaidan ustekabea lortzen saiatzea. *Suminaren estrategia* polizia-nobela ez bada ere, halako liburuen kutsua ere badauka, eta, guztiok jolas-zaleak garen neurrian, beti gustatzen zaigu espero ez ditugun bideak aurkitzea.



## Xake partida baten gisa egituratutako nobela

Treanean, ohean edota parke batean lasai asko irakurtzeko moduko liburua idatzi nahi zuen Fernando Morillok oraingoan, irakurleek liburu biziak, zuzenak, harrapatzeko modukoak eta dinamikoak eskatzen zizkioteko. Gogo horretatik sortu zuen Elkar argitaletxearen eskutik kaleratutako *Suminaren estrategia*, tentsioa eta elkarrizketa ugari dituen nobela. Mendeku baten ahalegina oinarri hartuta mamitu du idazleak bere misteriozko liburu honen nondik norakoa. Protagonista nagusia Aimar Goikoetxea antropologoa da. Gazte horrek esperimendu sozialak taxutzen ditu, eta horri esker jasoko du, hain zuzen ere, bizitza aldatuko dion deia: ama batena, etxetik alde egin berri dion semea beregana itzultzeko eskatuz. Dena elkarren artean izandako liskar-rraren aurreko garaietan



### Suminaren estrategia

Fernando Morillo

ELKAR

138 orrialde  
12,45 euro

bezala gelditzea nahiko luke ama horrek. Trukean, antropologo “manipulazailari” oso ondo ordaintzeko prest azaldu da emakumea. Goikoetxeak enkargua onartu egingo du. Ez daki bide horretatik abiatzen denean heriotzei, amodiozko minei, gazte sentiberen depre-sioei eta balizko suizidioei aurre egin beharko diela. ■

egileari galdezka